

UPV/EHUⁿ IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2025) **I eta II MODALITATEAK**

Onartu eta ukatutako eskaeren behin-behineko ebazpena

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak (IE) honako deialdi hau argitaratu zuen:

UPV/EHUⁿ IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2025.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda eta lehen fasearen emaitzak IEaren webgunean argitaratu ondoren, eta deialdiaren, Ebaluazio prozesua, 7.3 oinarriarekin bat:

Bigarren fasean, 7.4 oinarrian aurkeztu den taulan ezarritako 7. eta 8. irizpideak ebaluatuko dira, guztira 35 puntu direla. Irizpide horien ebaluazioa kanpo prozesu baten bidez egingo da, Unibask-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren edo antzeko ezaugarriak dituen kanpoko agentziaren bidez.

Bigarren fasera igaro diren eskabideen puntuazio osoa lortzeko, eskatzaile bakoitzari lehenengo fasean egindako ebaluazioaren guztizkoa eta bigarren fasean lortutako ebaluazioaren guztizkoa batuko zaizkio. Ebaluazioaren emaitzak Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzarako batzordeari (IGBB) bidaliko zaizkio; horrek dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketa Errektoreordeari, behin-behineko ebazpena eman eta argitara dezan.

Eskabideak ebaluatzeko tramitea bukatu ondoren, IGBBk, 2026ko martxoaren 12an egindako bileran, esleipenaren proposamena egin zuen, behin-behineko ebazpena eman eta argitaratzeko. Horrenbestez, IAEk ERABAKI DU bere webgunean argitaratzea **emandako eta ukatutako eskaeren behin-behineko ebazpena**; *II. Fasea – I eta II Modalitateak* eranskinean jasota dagoena.

Behin-behinean EMANDAKO eskaerak jaso dituzten pertsonak **2026ko martxoaren 16tik 30era (biak barne)** izango dute kontratua onartzeko edo uko egiteko. Hori adierazteko, jasoko duten mezu elektronikoari erantzun beharko dute helbide honetara solicitudes-pif.dgi@ehu.eus.

Epe hori iraganik, **espresuki onartu** egiten ez bada, eskabideak **atzera egin direla ulertuko da**.

Behin-behinean eskaera UKATUA izan dutenei dagokienez, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte lehenago aipatutako epe berean: **2026ko martxoaren 16tik 30era (biak barne)**.

Epe horretan bertan, eskatzaileek euren eskabideari dagokion ebaluazio txosten osoa eskatu ahalko dute solicitudes-pif.dgi@ehu.eus helbidera idatzita eta gaian **"PIF 2025 TXOSTENA"** adieraziz.

Alegazioak bakarrik UPV/EHUko egoitza elektronikoan (<https://egoitza.ehu.eus>) ezarritako epean aurkeztu beharko dira, eta alegazioaren azalpeneko dokumentua **"PIF 2025 ALEGAZIO"** izena izan behar du. solicitudes-pif.dgi@ehu.eus helbide elektronikoaren bidez erregistroan alegazio bat egin dela adierazi behar da.

Salbuespen gisa, eta Espainiako lurraldean bizi ez diren egiaztatzen duten hautagaiek soilik, aurkeztu ahal izango dituzte alegazioak postaz solicitudes-pif.dgi@ehu.eus helbidera bidaliz, gaian **"PIF 2025 ALEGAZIO"** adierazita.

Leioan, 2026ko martxoaren 13an